


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 2a / 579. zenbakia



ERRAMU ZAPATUKO FERIA BIHAR

GANADUA, BASERRIKO PRODUKTUAK, ARTISAUAK, TXORIMALOAK... ETA GEHIAGO!

POLITIKA: EUSKAL GOBERNUA, BERGARAN/7 • TXIRRINDULARITZA: EUSKAL HERRIKO ITZULIA/10

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIAK: BERRIGARA



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Euskal Herriko Itzulia



Goiena Telebista

Ikustekoa!

EUSKAL HERRIKO ITZULIA
Saio berezia

Martitzenean, apirilaren 6an,
20:30ean


ATREBENTZIAEZPADA/ Zer duzu gustuko en Erramu Zapatuko Feriatik?



JOSE MANUEL ALBERDI
37 urte



LEIRE MADARIAGA
33 urte



MIGEL ANGEL MURGIONDO
47 urte



JUAN PRIETO
45 urte



ANE MIREN ETXEBESTE
49 urte



MARTIN ARANA
73 urte

Dena dut gustuko orokorean. Astirik izanez gero, zerbait erosteko aprobeztatzen dut azoka, gaztaren bat-edo. Bestalde, egun horretan ganadua ikustera joatea ere gustatzen zait.

Giroa, kalean jende asko egoten da-eta. Baina txarrrena da egun horretan lan egin behar dudala denda; horrenbestez, ez dut astirik izango azokako postuak ikusteko.

Kaletarra banaiz ere, gustuko dut feria ikustea. Barazkien eta bestelako postuak, ganadua eta giroa bera ere politik izaten dira. Zapatu honetan ere egingo dut bueltatxo bat azokan.

Azoka bera gustatzen zait orokorrean. Denetarik ikusten dut pixka bat, eta erosi taloak eta horrelakok erosten ditut. Horrelako azokei eutsi egin behar zaie la uste dut.

Dena. Oso festa ezaguna da, gainera, urtetan. Baserrian jaiotakoa naiz eta senarra ere baserrikoa da; beraz, giro hori gertutik bizi izan dut. Erosketak egiteko ere aprobeztatzen dut azoka.

Sortzen den giroa, baserriar asko etortzen baita. Ganaduak edo postuak ikustez ez naiz askorik arduratzen, baina herrian bertan eta kaleetan dagoen giroa bizi izatea gustatzen zait.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK LOKATZA TXIRRINDULARI TALDEA Lokatza taldeko kideak txalotu nahi ditu irakurle batek, Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa antolatzeke egiten diharduten lanarengatik. Lehen etapa Bergaran hasi eta amaituko da, eta lasterketa ganorazkoa izan dadin, txirrindularien lanaz gain, antolatuzaileena ere beharrezkoa da. Lokatzaokoe ez ezik hainbat herritarrek ere lagunduko dute. /A.

ASTEKO DATUA

200

SALMENTA POSTU ERRAMU ZAPATUKO FERIAN

Erramu Zapatuko Feria da aste-buru honetan, eta azken urteotako hazkundearen adierazle da salmenta postuen kopuruak ere gora egin duela. Herriko hainbat gunetan egongo dira postuak.

BESTE KESANA

“Modan jarri da azken aldirian, bere aldiridiko hauteskundeetan izandako gainbeheraren ostean, Alfredo Urdaciren [TVEko

**albistegietako arduraduna] etorkizun profesionalaren gaineko txisteak egitea. Batzuek barrea eragiten dute, beste batzuek, ordea, ez dute inolako graziaz egiten. Esaterako, La Farola egunkariak zuzendari moduan jartzeko horrek, nahikoa baitute La Farola-koek eurenarekin. Hala ere, gaitzerdi, manipulatuzaile handi honen etorkizunak sortutako interesak, martxoaren 14aren ostean fundamentalismo konstituzionalistaren lerroetan zenbaterainoko desolazio maila dagoen galdetzen segitzera bagaramatza”
MARTIN GARITANO / Kazetaria ‘Gara’/04-03-25**

BERAIEK DIÑOE / Aitziber Azkondo



Haizeak ez ditzala hitzak eraman

Herriko kontuen inguruan idaztea eskatu didate eta gaia burura etortzeko ahaleginak egin nahian nenbi-lela, zer eta alkatea telebistan, Goiena telebistan, alegia. Apropos baino aproposago. Bertara deitu eta deitu ibili hainbat galdera egin nahian, baina ez zigun inork telefonoa hartu (dei ugari beharbada?), beraz, apirilko lerro hauek aprobeztatu behar, gutxienez zerbait aipatzeko.

Hainbat gai izan ziren hizpide Gorritibereak eta alkateak izandako jardunean, herritarren eskaerak barne. Denak ukitu ezinean, bat gutxienez aipatu beharrean nago. Badakizue, zein den. Etxebizitzak eta zuzenean jasaten dugun espekulazioa.

Alkateari, babes ofizialeko hainbat etxe, 200 inguru, herriko hainbat toki ezberdinean egiteko, eta lagata dauden etxabeak etxebizitza bilakatze-ko asmotan dabilzala entzun

nion. Azken hauek ere, babes ofizialeko etxebizitzaren prezio bera. Primeran iruditzen zait, baina haizeak ez ditzala hitzak eraman.

Esan daiteke gazteok herri giroan eta herriaren etorkizuneari giltza bat baino gehiago dugula. Alegia, gazteok etxebizitza izateari aurre egiteko arazoak baditugu, beste gauza asko alboratu beharrean gaude eta horrek zer ikusi handia du, esaterako, azken boladan Bergarako kale giroaren eta merkataritzaren jaitsieraren besteak beste. Ez duzue uste? Ezin diogu denari aurre egin.

Egoera honetara ez iristeko beharrezko politika egitea izango litzateke azkarrena, baina pentsa dezagun etorkizuneari eta Udalarik proiektu berriak bete behar dituela gogoratu, eta eskatu. Urteko aurrekontua 18 milioi eurota-koa izanik, horrela ulertu nuen behintzat, zerbait geratuko zaigu herria berpiztuko, ezta?

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /11

KULTURA /14

Hobekuntza lanak herrian

Euskal Herriko Itzulia Bergaran hasten dela-eta, hobekuntza lanak egin dituzte herri barruan.

Eskubaloian azken saioak

Senior mailako neskek eta mutilak denboraldiko azken partiduak jokatu dituzte.

Gatillazo taldea Jamen

Zapatuan, Gatillazo, Evaristo kantari ezagunaren talde berria, izango da Jam aretoan.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 2**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 3**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 4**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 5**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 6**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaitzak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA APIRILAREN 25EAN
1935ean jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute apirilaren 25ean Zumelaga jatetxean, 14:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan, 12 euro ordainduta. Argibideak 943 76 27 12 (Regino Valle) telefono zenbakian.

LOKATZAREN ZOZKETA
Lokatzak Gorlako igoeran egindako zozketan 500 zenbakia saritu dute. Txartelaren jabeak ardo kaxa eta urdaiazpikoa eskuratuko ditu. Irabazlea agertuko ez balitz, 446 litzateke ordezeko zenbakia.

MARISKO-JANAREN ZOZKETAN ZUZENKETA
Bergara Aurrerak Erramu Zapatuan egingo duen marisko-janaren zozketan, 5.920-5.950 eta 8.420-8.450 bitarteko zenbakiak baliorik gabe utzi dituzte. Zenbaki irabazlea apirilaren 3ko Loteria Nazionalaren sari nagusiaren azken lau zenbakiekin bat egiten duena izango da.

ATZEGI ELKARTEAREN DEIA
Atzegik antolatuta, bazkaria izango da Bergaran maiatzaren 15ean, Zabalotegin. Debagoien mailako ekitaldia izango da. Antolaketan laguntzeko gertu daudenek 943 76 52 39 (Karmele) zenbakira dei dezakete.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU ETA TXISKRILABI
Txapligu taldekoak Arrizuriagan elkartuko dira bihar, zapatua, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoek, berriz, jarduerak izango dituzte Udal Euskaltegian, ordu berean. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Obarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Iker Murua-mendiaraz, Euskadiko txapeldun

Iker Muruamendiaraz pilotariak Euskadiko gazte mailako txapelketa irabazi zuen, 1994ko apirilaren 3an, Zarauzko pilotalekuan jokaturako finalean Larraya nafarrari 18-10 irabazita. Finalaurrekoan, Iker Muruamendiarazek Santamaria bizkaitarra hartu zuen mendean.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Aldamiño"



Aldamioa. Aldamixo ere entzuten da gaur egun.

ASTEKOPELIKULAK

'CUANDO MENOS TE LO ESPERAS'

ZUZENDARIA: NANCY MEYERS. AKTOREAK: JACK NICHOLSON, DIANE KEATON.

HARIA. Harry gonazale amorratua da. Egun batean, bihotzekoak emango dio, bere azkeneko *konkistaren* amaren etxean...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'BIG FISH'

ZUZENDARIA: TIM BURTON. AKTOREAK: EWAN MCGREGOR, HELENA BONHAM-CARTER.

HARIA. Fantasiatzko istorio zoragarriak lantzen ditu Tim Burton zuzendariak. Honetan, kontu-kontari aritzea da hiltzorian dagoen aita baten zaletasun handiena, bere bizitzan gertatutako pasadizoak kontatzea. Semeari errealitatea eta ametsa nahastu dituela iruditzen zaio.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, apirilaren 8an, 19:30ean eta 22:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

JAIK/ Guztira, 200 salmenta postu izango dira herriko kaleetan banatuta

Ganadua, era askotako produktuak eta jai giroa biharko Erramu Zapatuko ferian

EDU MENDIBIL

Astelehenero txirrindulari festaren aurretik, Erramu Zapatuko feria izango dugu bihar, zapatua. Goizetik, abelburuak, era askotako produktuak eta makineria ugari ikusteko aukera izango dugu. Jai giroa nagusi izango da bihar egun osoan.

Aste Santuaren atarian ohikoa den moduan, Erramu Zapatuko feria ospatuko da Bergaran bihar, zapatua. Udaleko Auzoetako batzordeak, Diputazioaren laguntzarekin, egitarau zabala prestatu du biharko. Debagoieneko feria nagusietako bat dugu Erramu Zapatuko eta bihar ere, bergarrak ez ezik, inguruko herrietatik etorritako jende ugari izango da. Antolatzaileen arabera, feriak hazkunde nabaria izan du azken urteotan eta goizean goizetik jende ugari ibiliko da bihar ere herriko kaleetan.

Aurreko urteotan bezala, abelburuak, baserriko produktuak, nekazaritzako makineria eta artisau lanak ikusgai eta salgai izango dira ferian. Seminarioko patioan egingo da abelburuen erakusketa: besteak beste, pirenaika, blonda eta limousina arrazetako behiak, ardi latxak, zezenak, oiloak, basurdeak eta oreinak jarriko dituzte. Eguerdian, berriz, pirenaika arrazako bigantxen enkantea egingo da Ibargarain, 13:00etan. Guztira, 100 bat abelburu egongo direla aurreratu digute antolatzaileek, 70 bat erakusketan eta 30 bat bigantxa enkantean, hain zuzen.

ERA ASKOTAKO PRODUKTUAK

Feria 09:30ean zabalduko dute eta abelburuekin batera, eusko labelako produktuak, makineria eta artisau lanak izango dira Ferian. Fraiskozurin, Simon Arrieta plazan, Xabier Maria Munibe plazan, Domingo Irala eta Herri Lagunak kaleetan eta San Martin plazan 200 bat postu egongo dira biharko ferian. Besteak beste, ezti, gazta, txorizoa, sagardo, taloak, marmelada, ogia eta gozoak erosteko aukera izango da. Era berean, txakur leren erakusketa ere egingo dute eta goizean zehar errioxar ardoen eta Kataide txakolinaren dastatzea izango da Fraiskozurin eta Ibargarain, hurrenez hurren. Artisauak ere ugari izango dira bihar, San Martin plazan eta Xabier Maria Munibe plazan banatuta, hain zuzen ere. Goizean zehar Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak jardungo dute giroa alaitzen herriko kaleetan barrena eta horren ondoren Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolari ezagunek saioa eskainiko dute Seminarioko patioan, 13:30ean.



Ganaduez gain, baserriko produktuak, nekazaritzako makineria eta artisau lanak ikusgai izango dira biharko ferian.

ARTIBOIA

Ehun bat abelburu egongo dira ikusgai, horietatik 30 eguerdiko bigantxen enkantean

Arratsaldean, berriz, gazte-txoendako jolasak izango dira San Martin plazan, 17:30ean. Gorritiren aberekin jolasteko

Arratsaldean gaztetxoendako jolasak izango dira San Martin plazan, 17:30ean

aukera izango dute txikienek. Pony txikiak, oilarrak, zezentxoak eta beste hainbat abere aterako ditu Gorritik.

Maila handiko bertsolariak izango dira gauean Udal Pilotalekuan, 22:15ean

BERTSO JAIALDIA GAUEAN
Erramu Zapatuari amaierako emateko ohiko bertso jaialdia izango da Udal Pilotalekuan,

22:15ean hasita. Maila handiko bertsolariak izango ditugu biharko saioan: Anjel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Amets Arzalluz, Sustrai Colina, Mikel Mendizabal eta Jose Luis Gorrotxategi. Gai-jartzaile lanean Laxaro Azkune ezaguna arituko da. Bertso jaialdirako sarrerak Frontoiko leihatilan bertan jarriko dituzte salgai, sei euroren truke.

ZIRKULAZIO ALDAKETA BIHAR

Biharko feria dela eta, Udaltzaingoak gidariei zuzendutako oharra kaleratu du. Zirkulazioari eta aparkalekuei dagokienez hainbat aldaketa eragingo ditu feriak. Esan bezala, postuak Ibargarai, Herri Lagunak eta Domingo Irala kaleetan jarriko dituzte, eta, horren ondorioz, kale horietan apartakuta egoten diren autoek 06:00etarako kenduta egon beharko dute zapatuan. Horrez gain, Ibargarai kalea zirkulazioari moztuta egongo da, eta Zurra-dero eta Matxiategi kaleetatik desbideratuko dute. Horrek guztiak trabak eragingo ditu erdialdeko zirkulazioan, batez ere. Hori dela eta, Udaltzaingoak gomen datzen du ahal den neurrian auto-rik ez erabiltzea bihar, erdiko kaleetan, zirkulazio arazoak saihesteko. Bestalde, gogorarazi nahi dute horrelako egunetan diru-zorro lapurrak ibili ohi direla azken urteotan. Beraz, jendea pilotzen den guneetan, poltsekin eta arreta handiz ibiltzea eskatzen du herriko Udaltzaingoak.

Txorimalo Lehiaketaren 10. urteurrena

Erramu Zapatuko ekitaldien artean Txorimalo Lehiaketak tarte berezia izango du aurten ere. Aurtengoa hamargarren ekitaldia izango da. Bihar 35 talde izango dira lehian, joan zen urtean baino hiru talde gehiago, hain zuzen ere. Ohikoa den moduan, Ibargarain jarriko dituzte ikusgai, 11:00etan. Era berean, txorimalo-arekin batera euskararen gaineko esaldi bat aurkeztu beharko dute partaideek. Adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dituzte: 12 urtera artekoak, 12-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Jarduneko arduradunek emandako datuen arabera, partaideen artean gazte-txoen taldeak dira nagusi. Guztira, 220 bat neska-mutikok hartuko dute parte biharko lehiaketan. Gaztetxoen taldeko onenek egun bateko bidaia eskuratuko dute sari gisa eta beste bi taldeetan, irabazleek 90 euro eta bigarren saridunek 60 euro

eskuratuko dituzte. Era berean, esaldi onena aurkeztzen dutenentzat ere 60 euroko saria egongo da bihar. Sari banaketa Ibargarain bertan egingo dute, eguerdi aldera, 12:30ean.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Jardunek antolatutako kantu afaria izango da Txarrantxa jatetxean, 21:00etan. Guztira, 50 bat lagun elkartuko dira gaurko afarian. Jardunek kantu afaria antolatzen duen lehen aldia da. Guru Ariznabarreta Jarduneko kideak zera adierazi digu: "Afarietan-eta kanturako zaletasun handia dagoenez, zerbait egitea pentsatu genuen. Afarira datozenei liburuxka bana emango diegu eta horren ondoren, Domentx Ucin eta Aritz Alustiza gitarra ikastaroko eta trikiti eskolako irakasleen laguntzaz, kantuan egiteko aukera izango dugu". Girorik ez da falta izango gaur Txarrantxa jatetxean.

GARRAIOAK/ Santa Marina inguruan, Ibargarai kalean eta Bergara-Arrasate tartean tranbiak zein irtenbide izango duen ez dago garbi

Debako tranbiaren ingurumen eraginari erantzuna ematea erabaki zuen udalbatzak

EDU MENDIBIL

Debako tranbiak ingurumena gainean izango duen eraginaren ebaluazioa aztergai izan du udal gobernuak azken asteotan. Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren kontsulari erantzuna ematea erabaki zuen udalbatzak astelehenean.

Aipatutako proiektuan, trazaduraren inguruko azalpenak ere egiten dira. Esate baterako, aurkeztutako planoen arabera, tranbiak Santa Marina zubia zeharkatuko du. Hala ere, testuaren arabera, Usondo aldamenetik joango da eta Deba ibaia zeharkatuko du, zubi berri baten bidez. Imebisa tranbiaren enpresa sustatzaileari Udalak bi irtenbide proposatu dizkio: batetik, bide bakarra jartzea Santa Marinako zubitik pasatzeko edo bidea bitan banatzea: joaneko bidea San Lorentzorako noranzkoan eta kontrako bidea Zurradero zubitik Ibargaraira. Irtenbide honek aukera ematen du tranbia Ibargarai kaleko zati



Hasierako proiektuan tranbiak Deba ibaia zeharkatuko du, zubi berri baten bidez.

ARTXIBOA

estuenetik ere pasatzeko. Lehenbiziko irtenbideak, berriz, ez du Ibargarai kalean tranbia pasatzeko dagoen arazoa konpontzen.

Ez dago oso garbi zein irtenbide izango lukeen tranbiak zerbait tokitan. Ibargarain, esaterako, fatxaden arteko tartea 15 metro baino txikiagoa da eta gaur egun ibilgailuak bi noranzkoetan ibiltzen dira han. Gainera, hainbat etxebizitzaren atariak kalera ematen dute. Bergara-Arrasate zatian, berriz, korridore bakarra proposatzen da. Urkulutik Bergarara ura ekartzeko hoditeria nagusia pasatzen da azpitik eta gainean pasealekua eta bidegorria daude. Tranbia jartzean, oinezkoentzako pasealekua eta bidegorria desagertuko ote diren galdetzen du Udalak.

BERGARA AURRERA, HITZIK GABE

Bergara Aurrera taldearen izenean, Jesus Mari Garitanok hitza eskatu zuen asteleheneko udalbatzan. Hala ere, Victoria Gallastegi alkateak ezezkoa eman zion, arauzko formak ez betetzeagatik.

Euskal Herriko Itzulia dela-eta, hainbat konponketa egin dituzte

E.M.

Astelehenean Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Bergaran hasten dela-eta, hainbat tokitan hobekuntza lanak egin dituzte. Besteak beste, San Lorentzo-Masterreka bitarteko errepide zatia konpondu dute.

Txirrindulariek ahalik eta ibilbide erosoena izan dezaten, hainbat hobekuntza lan egin dituzte udal langileek: San Lorentzo eta Masterreka bitarteko errepide zatia konpontzeaz gain, Bideberriko aparkalekua asfaltatu egin dute, zulo dezente zegoen-eta.

HESIAK INFERNUKUAN

Bestalde, ibilgailuen abiadura moteltzeko errepidean ipinitako bandak kendu egin dituzte Bolu eta San Lorentzo bitartean. Matxiategin, Martokon eta Zubiaurren bi beharrea banda bakarra izango da puntu bakoitzean, tropela motelago igaroko baita hortik.

Asteleheneko etaparako, Amillagan, Ibilgailuen Azterketa Teknikoko tailerraren parean dagoen biribilunea kendu egingo dute txirrindulariei trabarik ez egiteko. Infernukuako bihurtugunean hesiak jarriko dituzte, txirrindularien istripuak saihesteko.



Mugertzan ere konponketak egin dituzte errepidean.

IBAN ARANTZABAL

LABUR

Jardunek Hizkuntza Eskubideen Egunera joateko autobusa antolatu du domekarako

Jardun elkarteak domekarako, apirilaren 4rako, Lesakan egingo den Hizkuntza Eskubideen Egunera joateko autobusa antolatu du. Bergaratik 09:00etan aterako da. Euskal Herrian Euskaraz taldeak ere Lesakara joateko dei egin die euskaltzale guztiei.

Autobusean joateko izenematea 943 71 21 17 telefono zenbakira deituta egin daiteke.

Auto-enplegu ikastaroa apirilaren 19tik maiatzaren 5era, Udalaren eskutik

Udalaren Enplegu Zerbitzuak antolatuta, auto-enplegu ikastaroa izango da apirilaren 19tik maiatzaren 5era bitartean. Besteak beste, auto-enplegu prozesua, merkatu analisia eta marketina, ekonomia eta finantza analisia eta lan kudeaketa jorratuko dituzte.

Argibideak Udalaren Enplegu Zerbitzuan edo 943 77 91 24 telefonoan jaso daitezke.

Zapatuan Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Bergara Aurrerak

Bergara Aurrera taldeak dei egiten du bihar, zapatua, *Autodeterminazioa orain* lelopean Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko. Manifestazioa Aita Donostia kaletik aterako da, 17:30ean. Autobusean joan nahi dutenek Pol-Pol eta Arrano tabernetan edo bergara@aurrera.org helbidean eman dezakete izena.

Zezen Zaleak taldeak Salamancara irteera egingo du apirilaren 24an eta 25ean

Zezen Zaleak taldeak apirilaren 24an eta 25ean Salamancako Lopez-Chaves ganadutegira joateko irteera antolatu du. Irteera: larunbatean, 06:00etan, frontoitik. Eta itzulera: domekan, 19:00etan. Prezioa: 160 euro (autobusa, bazkariak, kapea eta hotela barne). Izenematea Ganbara tabernan, apirilaren 17a baino lehen.

Ibarretxe lehendakaria eta Jaurlaritzaren gobernu taldea Bergaran elkartu ziren

EDU MENDIBIL

Eusko Jaurlaritzaren gobernu taldeak bilera egin zuen martitzenan Bergaran. Asteroko bilera egiteko Bergarara etorri ziren Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta gobernu kontseilari guztiak. Auto banatan etorri ziren: kontseilariak lehenbizi eta azkenik Ibarretxe lehendakaria. Hamarretan puntu-puntu Victoriano Gallastegi alkateak ongietorria egin zion lehendakariari, autotik jaitsi eta berehala. Lehendakariaren eta gobernu taldearen etorrerak ikusmin handia piztu zuen ordu horretan San Martin plaza inguruan zebiltzan herriarren artean.

Jaurlaritzako kideak eta Bergarako Udaleko zinegotziak oso-ko bilkuren aretoan elkartu ziren ordu laurdenez. Lehendakariak banan-banan agurtu zituen zinegotzi guztiak eta horren ondoren taldeko argazkia atera zuten. Oso-ko bilkuraren aretoaren edertasunaren gaineko komentarioak egin zituen Ibarretxek Udaleko ordezkarien aurrean. Gallastegi alkateak egun historikotzat jo zuen lehendakariaren bisita.

Gobernu taldeak udaletxean bilera egin ondoren, eguerdi aldera Errekalde jauregiko Irargi dokumentazio zentroa bisitatu zuen. Bisitari amaiera emateko, gobernu kideek eta alkateak Lasa jatetxean bazkaldu zuten.



E.M.

Gallastegi alkateak ongietorria egin zion lehendakariari.



E.M.

Ibarretxe lehendakaria mahaiburua zela, sailburuek gobernu kontseilua egin zuten udaletxeko batzorde aretoan.



E.M.

Jaurlaritzako sailburuak eta Bergarako Udaleko zinegotziak, osoko bilkuren aretoan.

Horkonpon

OINETAKOEN KONPONKETA



Bidekurutzeta 30 • Tel.: 943 76 04 07

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



Bergara Errehabilitazio Fisioterapia Zentroa

MASAJEAK ETA ERREHABILITAZIOA

Hitzartutako aseguru berria:



Matxiategi 5
Tel.: 943 76 02 03/76 25 70



ETXEBERRIA BITXITEGIA SARITU DU GIPUZKOAKO MERKATARIEN ELKARTEAK

Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak Bergarako Etxeberria bitxitegia saritu berri du. Merkatarien Elkarteak 50 urtetik gorako ibilbidea duten bederatzidenda omendu zituen, domeka eguerdian, Donostiako Miramar jauregian. Loli Etxeberriak plaka orogarria jaso zuen aipaturako ekitaldian. Era berean, Teresa Cormenzana elkarteko presidentea omendutako guztien lana eta kemena goraiatu zituen. Calixto Etxeberriak

sortu zuen Etxeberria bitxitegia, 1933. urtean. Goian, eskumako argazkian ikus dezakezue Calixto, bitxitegia Bidekurutzetako lehen zenbakian zabaldu zuenean, gaur egun udal artxiboa dagoen lekuan zegoen plazatxoan, hain zuzen. 1936a ezker Bidekurutzetako 16. zenbakian dago denda eta Lolik eta bere familiak dute negozioaren ardura. Izan ere, familiaren hirugarren belaunaldia lanean da aspalditik... Zorionak eta urte askotarako!



ELIZAMENDIKO AMA BIRJINAREN BEDEINKAZIOA JASO ZUTEN HAINBAT UMEK

Elizamendiko Andre Mariren bedeinkazioa jasotzera hainbat lagunek euren seme-alabak eraman zituzten, domeka eguerdian, Angiozarrera. Elizamendiko ermita egoera txarrean dagoela-eta, Angiozarko San Miguel parrokian egin zuen elizkizuna Juan Kruz Juaristi Elgetako parrokoak. Jende asko joan zen mezara, tartean 20 bat ume eta neska-mutiko. Bedeinkazioaren uean, apaizak ur bedeinkatuarekin ziprztindu zituen umeak eta jarraian banan-banan gurutzea egin zien bekokian. Aspaldiko sinismenaren arabera, sinistunek, ez dute gaitz txarrik hartuko Elizamendiko Ama Birjinaren babes izango dutelako. Hain zuzen ere, umeak gaitzetatik libratzeko, haurdunaldi ona izateko edo haurdun geratzeko ere jo izan dute aspalditik Elizamendiko Ama Birjinarengana. Angiozarren ez ezik, inguruko auzo eta herrietan ere debozio handia izan diote Elizamendiko Ama Birjinari. Domekan berriz ere, jarraitzaile ugari dituen Ama Birjina dela argi geratu zen...

KULTUR ASTEA ARANZADI IKASTOLAN

Aranzadi Ikastolako ikasleek kultur astea izan dute aste honetako. Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora bitarteko ikasleendako hainbat ekitaldi antolatu dituzte eguaztenetik egubakoitzera bitartean: dantza saioak, bideo emanaldiak, hitzaldiak (alboko argazkian Unai Susaeta EHGAMeko kideak homosexualitatearen gainean eguaztanean UNEDeko aretoan egindako hitzaldiko irudia), txotxongilo emanaldiak, ikastaroak, jolasak, erakusketak eta beste hainbat gauza. Klaseetatik kanpoko jarduera horiek arrakastatsuak gertatzen dira beti, eta ikasleak gustura murgildu dira kultur astean..



MINGAINARITIRAKA



Itziar Azkarate

JUNBIJU DENDAKOA

Barrenkaleko Junbiju dendaren arduraduna da antzuolar hau. Irribarre batekin hartu gaitu bere dendan, betiko moduan. Kolore bizidun arropen artean topatu dugu, eta denboraldi berrirako jaso berri dituen prakak kaxetatik ateratzen.

Udaberria iritsi zaigu, baina eguraldia negukoa dugu. Hori igartzen da dendan?

Pixka bat igartzen da, baina dagoeneko denok daukagunez uda laster datorren ideia, nik, behintzat, ondo saltzen dihardut.

Zelako arropa dator denboraldi berrirako?

Denetik; dena dela, koloreak dira nagusi: gorria, laranja, pista-txoa... Oso kolore biziak.

Zeuri, ze estilo gustatzen zaizu gehien?

Lagunek esaten didate aurtengo arropak aproposak direla niretako; asko gustatzen zaizkit kolore biziak.

Arropaz gain, baina, bestelakoak ere saltzen dituzue.

Bai; eraztunak, belarritakoak, diru-zorroak, poltsak, artisauen lanak... Betiere, dendaren estilora egokitutakoak.

Dendan lan egitearen alde onena? Eta txarrena?

Jendearekin harremana izatea; gainera, zortea daukat, bezero gehienak gazteak direlako eta beti gazte artean egoten naizelako. Txarrena, berriz, arrazoï bategatik edo besteagatik, bezeroaren gustua ezin egin ahal izatea.

Zaletasun bat?

Paseatzea. Urkulura joatea, esaterako, asko gustatzen zait.

Telebistako saio gustukoena?

Egia esan, ez dut askorik ikusten telebista, baina *Vaya semanita* saioa gustatzen zait.

Musika talde bat?

Beatles.

Besteengan, zer estimatzen duzu?

Zintzotasuna; beti egia esatea.

Asteburu baterako plana.

Mutil-laguna bisitatzera joatea.

Bizi izateko toki bat?

Antzuolan gustura bizi naiz, baina, Hernani asko gustatzen zait; han bizi izan nintzen orain dela urte batzuk.

Bukatzeo, amets bat?

Nire herria, Euskal Herria, aske izatea, horrek dakarren guztia-ekin, eta mutil-lagunarekin bizi ahal izatea.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

IÑAKI LETURIA

46 URTE / DEKORATZAILEA / BILBON BIZI DA

“Bilbon ez dago Bergaran dagoen patxada; hemen beti zalapartaka ibiltzen gara”

AINTZANE IRIZAR

Urte asko dira Iñaki Bilbon bizi dela, 25 urte, hain zuzen ere. Batxilergo ikasketak bukatu zituenean, soldadutza egitera joan zen, eta handik itzuli zenean, Bilbora.

Argi eta garbi zeukan zer egin nahi zuen: Dekorazio ikasketak, hain justu; eta horrexetara joan zen Bilbora. Ikasten ziharduen bitartean, lanean hasi zen. Betiere, dekorazioan ibili da lanean: “Ikasketak egiten nengilena, eta era berean, han eta hemen lan egiten nuen, dekorazioaren munduan: dendetan, eraikinen eraberritze proiektuetan, eraikin berrien eraikuntza lanetan...”

Orain dela bost urte, berriz, Uccello altzari eta dekorazio denda zabaldu zuen, Bilbon, Heros kalean. Dekorazio proiektuak egiten ditu. Dendan, baina, hori baino gehiago eskaintzen du: “Sukaldeak izan ezik, etxean behar den ia dena daukagu dendan: era guztietako altzariak, oihalak, gortinak...”

Bilboko erdigunean dauka denda, eta, esan digunez, lehia-kortasun handia dago sektore horretan. Dena dela, pozik dago bere negozioarekin.

Bergarako izanik, herrian ere hainbat lan egin izan ditu; gainera, bezero bergarar ugari dauka. Lagunak, lagunak askotan joaten zaizkio dendara, eta bezero oso leialak ei dira, gainera, bergararrak. Bergarakoak ez ezik, ibarreko gainerako herrietan ere badauzka bezeroak.

Bizimodua hantxe eginda dauka Iñakik, eta gustura dago: “Hogeita bost urte daramat hemen bizi izaten, hementxe daukat nire bizimodua”, diosku. Aste osoa dendan pasatzen du, lanean. Asteburuan, berriz, kanpora irteten da: “Lagun batzuek Kantabria aldean etxeak dituzte, eta askotan joaten gara asteburu pasa”.

Baina Bergarara ere sarritan

“Dekorazioaren munduan lan egin izan dut beti; orain, neure denda daukat”

etortzen da: “Hilean behin, gutxienez, joaten naiz Bergarara. Familiarekin eta lagunekin egotera joaten naiz, batez ere. Kalean ez naiz askorik ibiltzen; gainera, irteten naizenean, zelanbait alboratuta sentitzen naiz. Izan ere, kalean ia inor ez dut ezagutzen; gazte mordoak ikusten dut eta ez dut inortxo ere ezagutzen”.

Bilbok Bergarak eskaintzen ez zizkion aukerak eskaintzen zizkiolako joan zen Iñaki hara. Eta halaxe izan da: gaur egun, negozio propioa dauka.

Gustatzen zaio hiria; baina, noizean behin,

Bergararen falta ere sumatzen du. Halaxe azaldu digu: “Bilbon ez dago Bergaran dagoen patxada; hemen zalapartaka ibiltzen gara beti. Edozein enkargu egin behar duzula ere, ondo pentsatu behar duzu; Bergaran, berriz, dena gertu dago”.

Hala ere, ez dauka herrira itzultzeko asmorik: “Joatekotan, gainera, zer? Denda bat jarri beharko nuke, eta han ez dago hemen besteko aukerarik, nahikoa daude dagoeneko”, azaldu digu.

Bilbotarren izaeraren gainean galdetuta, daukaten harropuz famaren gainean jardun du “Hemen ere, alde guztietan bezala, askotariko jendea dago”.

Bilbotarrek gipuzkoarra dela esaten diote; Bergarara etorri, bilbotarra dela. “Inongoa ere ez naiz, ala?”, galdetzen dio bere buruari. Baina Iñakik argi dauka: Bilbon bizi da, baina bera bergararra da eta halaxe izango da beti.



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.:943 76 15 09

POL-POL
Taberna



943 76 07 78. Bergara

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

Herriko kaleetatik lau aldiz pasatuko dira txirrindulariak asteleheneko lehen etapan

Lehenengo etapa menditsua izanik gogorra dela esan dute antolatzaileek, eta seguru aski Asentzion erabakiko da lasterketa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Apirilaren 5ean, astelehenean, Euskal Herriko Itzuliaren lehen etapa Bergaran hasi eta amaituko da, eta bigarren etapari ere herrian ekingo diote. Zaleek izango dute aukerarik txirrindularitzaz gozatzeko. Izan ere, herri barrutik lau aldiz pasatuko dira.

Aurten Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Bergaran hasiko dela gauza jakina da. Eguna gainean dugu jadanik, astelehena, apirilaren 5a.

Euskal Herriko Itzulia gehienetan Gipuzkoan hasi eta amaitzen da, baina orain artean Bergaran ez da sekula ez lehen ez azken etapa hasi edo amaitu. Beraz, aurtengoa izango da estreinako aldia.

Astelehenean, 13:45 inguruan txirrindulariak San Martin plazatik abiatuko dira, eta irteera neutralizatua egingo dute. Hain zuzen, Bidekurutzeta, Ibargarai, Bideberri, Zubieta eta San Lorentzotik pasatuko dira, baina lasterketaren 0 kilometroa Zubiberrin egongo da, sagardotegia dagoen tokian, gutxi gorabehera.

HERRI BARRUTIK

Hori izango da txirrindulariak herriko kaleetan ibiliko diren lehen aldia. Izan ere, lehenengo etapan guztira lau aldiz pasatuko dira herri barrutik.

Eguerdian abiatu eta lasterketaren zati handi bat egin ondoren berriz ikusiko dituzte zaleek txirrindulariak herrian. 15:40 inguruan Gorlatik etorriko dira txirrindulariak eta Bolutik behera egin ondoren, Masterreka, Zubieta, San Lorenzo, Matxiategi, Ibargarai, San Antonio, Martokua, Zubiaurre eta Ozaeta pasako dituzte, eta Labegaraietatik berriz irtengo dira errepidera.

Hurrengo, berriz, txirrindulariak herrira iristerako 16:45 inguru izango da. Orduan, saihesbidetik Ondartzako biribilunera ailegatu eta San Lorentzo, Zubieta, Bideberri, Ibargarai, eta San Antoniotik pasatuko dira berriz. Baina Labegaraietara jo beharrean Azkarruntzetik zehar Angiozarrearako bidea hartuko dute.

Azkenik, helmuga ere Bergaran izango denez, berriz herriko kaleetara bueltatuko dira txirrindulariak. Elgetatik jaitsi eta San Lorentzon barrena Zubieta Bideberrira iritsiko dira eta handik Ibargaraira, helmugara. Gutxi gorabehera Etxepare liburu dendaren parean egongo da helmuga. 17:15ak aldera amaituko da etapa.



Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa San Martin plazatik abiatuko da astelehenean, 13:45ean.

Plazatik abiatuko da lasterketa, 13:45ean, eta helmuga Ibargarain egongo da

Aipatutako herri barruko ibilbidean badira zenbait gune arriskutsu, Infernukua tabernaren aldameneko bihurtzea esaterako, oso estua baita. "Gune hori ongi babestuko dugu hesiekin eta lasto fardoekin txirrindulariek ezbeharrik izan ez dezaten eta

Infernukua ondoko bihurtzean txirrindulariak babesteko neurriak hartuko dituzte

Deba ibaira jausi ez daitezten. Gainera, behin baino gehiagotan pasatuko dira bertatik eta helmugatik gertu badago ere, azken kilometroetan ez ezik, aurrez badute arrisku hori zenbaterainokoa den probatzeko aukera. Itzuliaren antolatzaileek ere ema-

Deskarga edo beste mendateak dira etapa ikusteko toki aproposak, antolatzaileen ustez

ten diete ibilbidearen puntu arriskutsuen berri", esan digu antolakuntzako Mikel Larrañagak.

LASTERKETA NON IKUSI

Zaleak hainbat txokotara joango dira txirrindulariak animatzera, baina gehienek mendateetara

joko dute: "Deskarga izan daiteke leku aproposa, gero autoekin arazorik sortzen ez bada behintzat astia ematen duelako amaiera herrian bertan ikustera etortzeko. Gorlatik ere, mendiko pistatik Deskarga aldera joango denik izango da. Mugitu nahi ez duenak, berriz, herrian bertan lau aldiz ikusiko ditu txirrindulariak eta telebistaz ere ia osorik emango dute etapa", esan digu Mikel Larrañagak.

Lehenengo etapari buruz galdetu diogunean, Larrañagak gogorra dela esan digu. "Oso luzea ez bada ere lau mendate igo behar dituzte txirrindulariek. Nire ustez Gorlatik jaitsi eta Deskargara igotzen dutenean txirrindulari multzo bat nabarmentzeko aukera egongo da. Horren ondoren, etapa Asentzion erabaki daitekeela uste dut".

FABORITO UGARI

Munduko txirrindulari talderik onenak izango ditugu Bergaran eta betiko moduan zaila da faboritoen gainean ezer aurreratzea. Edozein modutan, Itzulia irabazteko kinei letan besteak beste, Beat Zberg eta Davide Rebellin (Gerolsteiner), Jens Voigt (Team CSC), Alejandro Valverde (Kelme), Juan Miguel Mercado (Quick Step), Danilo Di Luca (Saeco), Alexandre Vinokourov (T-Mobile), Tyler Hamilton (Phonak) edota Aitor Osa (Banesto) eta Iban Mayo, Haimar Zubeldia eta David Etxebarria (Euskaltel Euskadi) euskaldunak ditugu.

IRTEERA MARTITZENEAN

Horiek guztiak gertu-gertutik ikusteko aukera izango dute txirrindularitza-zaleek. Esan bezala, astelehenean 15:45ean abiatuko da lehen etapa San Martin plazatik eta martitzenean bigarren etapa (Bergara-Zalla) hasiko da bertatik, 12:45ean.

AUTORIK EZ ERABILI

Antolatzaileek behin eta berriz errepikatu dute egun horretan ez dutela utziko autoak herri barruan ibiltzen, larrialdietan salbu. Bestalde, apirilaren 4an, domekan, 08:00etarako Infernukua tabernatik Ibargarai kaleko biribilunera artean aparkatutako auto guztiak kendu egin beharko dira. Lasterketaren egunean bertan, 14:00etarako azokako zama gunea eta Ibargarai kalean, autobus geltoki parean dagoen aparkalekua husteko ere eskatu dute. Hala ere, lasterketa Bergaran ikustera etorri behar dutenendako izango da autoak aparkatzeko lekurik. Antolatzaileak hainbat enpresarekin harremanetan dira lantegietako aparkalekuetan autoa lagatzeko aukera izateko.

Erramu Zapatuan, kamisetak eta pintxoak

Lokatza Txirrindularitza Elkarteak lan handia egin du lehen etapa hau antolatzen, baina inguruan ehun lagunetik gora ibili da hainbat lanetan.

Horietako batzuek astelehenean bertan bidegurutzak zainduko dituzte, baina aurrez, zapatuan, jendea girotzeko jardunean ibiliko dira beste batzuk.

Izan ere, Erramu Zapatuko feria dela aprobetxatuz, antolatzaile taldeak txosnabat ipiniko du Migel Altuna ikastetxeko

sarreraren ondoan. Bertan, kamisetak salduko dituzte hamar euroren truke eta pintxoak eta txakolina dastatzeko aukera ere izango da, biak bi euro ordainduta. Itzulirako espresuki prestatutako pintxoak izango dira gula eta piperrez egindakoak. Itzuliari buruzko informazioa ere banatuko dute.

Bestalde, giroa ahalik eta alaiena izan dadin, astelehenean bertan Musika Eskolako gazteen banda ibiliko da kaleetan.

Ligako azken partidua jokatuko dute senior mailakoek Portugaleteren aurka

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zapatuan bi eskubalo partidu izango dira Labegariaietan; mutilen kadete eta senior taldeenak. Seniorren azkena izango da. Senior mailako neskek etxetik kanpo jokatuko dute partidu erabakigarria.

Denboraldia amaitzear da senior mailako mutilendako, eta azken partidua jokatuko dute bihar, zapatua, 19:45ean, Labegariaietan, Portugaletekoen aurka.

Azken jardunaldiaren ostean, jaitsiera postuetatik ihes egitea lortu dute, eta datorren denboraldian maila berean jardungo du taldeak. Partidua galdu egin zuten arren, ez dute azken partiduaren emaitzaren zain egon beharrik hori jakiteko, beste emaitzak nahikoak baitira ziurtatzeko.

Beraz, azken partidua datorren urtean taldea lagako dute-nei omenaldi txiki bat egiteko aprobeztatu dute.

Edu Orgaz taldeko kideak esan digunez, "denboraldia amaitzeko gogoz gaude guztiok eta gustura hartuko dugu azken partidua. Hala ere, irabaztera



Senior mailako neskek partidu irabazi edo berdindu egin beharko dute Galdakaon, mailari eutsi nahi badiote.

ARTXIBOA

aterako gara kantzara. Portugaleten joaneko partidua jokatu genuenean berdindu egin genuen, beraz, etxean ez dut uste irabaztea asko kostatuko zaigunik, nahiz eta eurak sailkapenean gu baino gorago egon. Gus-tura jokatzea da gure asmoa, eta

irabaziz gero, denboraldia amaitzeko modu polita izango litzateke".

KADETE MAILAKO MUTILAK, ETXEAN

Kadete mailako mutilek ere etxean jokatuko dute, zapatuan, Urolaren kontra, 18:00etan.

Azkenik, senior mailako neskek partidu erabakigarria dute Galdakaon domekan. Jaitsierako postuetatik aldendu arren, partidu irabazi edo berdindu egin beharko dute mailari eusteko. Galdakaoko taldearen aurretik daude, bi puntuko aldearekin.

Lehen mailako gazteak, infantilak eta erregionalekoak asteburuan Ipintzan

I.A.

Hiru futbol partidu izango dira asteburuan ipintzan. Zapatuan jokatuko dira lehenengo biak eta domekan bestea. Bergarako gainontzeko taldeek etxetik kanpo jokatuko dute.

Zapatuan, 12:00etan lehen mailako gazteen taldeak Soraluze-koak izango ditu aurrez aurre. Azken jardunaldian Lehengokoak taldearen aurka 8-2 galdu ostean, oraingoan joko hobia erakutsi beharko dute Gomez de Seguraren mutilek.

ERREGIONAL MAILAKOAK

Bazkalostean, erregional mailakoen txanda izango da. 15:45ean hasiko da bergararren eta zumaia-rreren arteko norgehiagoka. Joan den astean ordiziarren aurka erakutsi zuten mailarekin jokatuta nahikoa dute irabazteko.

Azkenik, domekan, 11:30ean lehen mailako infantil taldeak Aldapetarrak taldearen aurka jokatuko du. Etxean jokatzeak izango du abantailarik. Izan ere, joan den astean Anaitasunaren aurka galdu egin zuten, 3-0, kanpokoan zelaian.

FOTOKIROLA



Jorge Azantza, Gorlan irabazle

Domekan jokatu zen Gorlako igoera, eta beste edozeren gainetik eguraldi txarra eta elurra nagusitu ziren. Edozelan ere, hotzari aurre eginez gogor saiatu ziren txirrindulariak. 104 iritsi ziren helmugara, eta 27 erretiratu. Caja Rural taldeko Jorge Azantza altsasuarra izan zen irabazle, lasterketa esprintean erabakita. Bergarar azkarrena, berriz, Aldekoa-Lizarralde taldean diharduen Ander Agirre izan zen. I.A.

IGERIKETA

Igeriketa ikastaroak antolatu ditu Udal Kirol Zerbitzuak

Udaleko Kirol Zerbitzuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Adinaren arabera lau mailatan banatuko dituzte parte-hartzaileak eta maila bakoitzean hasierako eta hobekuntzako ikastaroak izango dira. 14 urte bitartekoek zapatu edo domekan izango dituzte eskolak eta 14 urtetik gorakoek, berriz, astelehen, martitzen eta egubakoitzetan joateko aukera ere izango dute. Taldea osatzeko gutxienez lau igerilarik eman beharko dute izena eta gehienez hamabik. 3 eta 4 urtekoen kasuan gehienezko kopurua sei ume izango da. Informazio gehiagorako eta izena emateko Udaleko Kirol Zerbitzura jo beharko da.

PILOTA

Astelehenean, DV torneoko finalaren errebantxa

Astelehenean, hilaren 5ean, 19:00etan hasita, bi pilota partidu izango dira Udal Pilotalekuan. Lehenengo, Mugu-ruza bergararrak Gonzalez añorgararren kontra jokatuko du lau t'erdian, eta partidu hau Elgetako txapelketarako puntuagarria izango da. Ondoren, DV torneoko finalaren errebantxa jokatuko dute senior mailako pilotari-rik. Dominguezek eta Altunak osatutako bikoteak Erroizena eta Oteiza izango ditu aurrez aurre. Bestalde, gaur, barikua, arratsaldeko zazpietan herriko pilotari gaztetxoek Udaberriko Txapelketako partiduak jokatuko dituzte; benjamin, alebin eta infantil mailakoek jardungo dute, hain zuzen ere.

LABEGARIAIETA

PARTIDUAK

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Errotagain-Argandolas . . . C. Nostra
10:30: Cosa Nostra-Ganbara . . . K. Piperrak
11:30: Etengabe-K.Piperrak . . . Ganbara
12:30: Irubide-Torrekoa Antolakun.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Bedarreta Antolakun.
10:30: Pirulotarrak-Canalejas . . . Txipiron
11:30: T. Musakola-Belengua . . . FAK
12:30: T. Añiketan-FAK Belengua
16:00: Mongakurra-T.M.T. Vervenir
17:00: Vervenir-Kalaveras Egurra
18:00: Egurre-P.D.S. De Resaka
19:00: De Resaka-A ze Flaxa . . . Agirrebeña
20:00: S.D.T.N.T.-Agirrebeña . . . A Ze Flaxa

EHNA

EGIN, ERABILI, ETA BIZI!



BERGARAKO

Oraindik egin ez baduzu, apirilak 3-tik aurrera duzu aukera. Hileko lehen bi larunbatetan, Irizar Jauregian egongo gara.

ANIMA ZAITEZ!!!

BAI

EUSKAL HERRIARI ✱

ORDUA: 11:30tik 13:30etara.
LEKUA: IRIZAR JAUREGIA.
ERAMAN BEHARREKOA:
3 argazki, errolda ziurtagiria eta 15 euro.



Udaberri eta udarako osagarri guztiak!

GANTXEGI

Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 15. alia

IEPA LAGUNOK!

Oporrak!!! Eguraldi ona egitten badau mendira juan geinke pottokok eguzkipian belarra jatera. Eta zuek, zer egin bihar dozue hainbeste egun jai edukitta? Ondo pasau oporretan!!



URREZKO ARAUAK



Segurara juan geinke Aste Santutan Ikusi dozu nere katakumia



Segurara juan leiekedogu Aste Santutan Ikusi dotsazu ner katakumiai

IPUIÑA

Ikusi dozu nere katakumia?

Kaixo, nere izena Mixi da eta Bergaran bizi garen katuon artian ederrena naiz. Egunero juaten gara erreka ertzera Muxi nere katakumia eta bixok xaguren bat harrapatzeko asmo-tan. Gaur be hala egin dogu.

Halako batian, Muxik sagu txiki bat ikusi dau eta haren atzetik hasi da zalapartaka. Baiña ni egoeraz jabetu naizenerako ez dot inondik inora nere katakumia ikusi.

Zelako larritasuna sartu jaten gorputzian! Segittuan hasi naiz erreka inguruan dabitzen zapo eta katuei Muxi ikusi daben galdezka.

–Kaixo Zapo jauna. Ikusi dozu nere katakumia?
–Egun osuan ez naiz hemendik mobiddu eta ez, ez dot zure katakumia ikusi. Baiña galdetuiozu han aurrian dagon katuari, biharbada berak jakingo dau zezer.



Lasterka bizixan juan naiz katuagana.

–Kaixo katu andria. Ikusi dozu nere katakumia?

–Ez, ez dot katakume-rik ikusi, baiña nahi badozu elkarrekin jarraituko dogu billa.

Katu andriarekin batera aurrera egin dot, baiña ez oso urrin. Segittuan, ume txiki baten negarra emoten zeben zarata batzuk entzun dittugu.

–Entzun dozu umiaren negarra?

–Galdetu dost katu andriak.

–Bai, baiña... ez da umiaren negarra, nere katakumia- ren miaua da.

Segittuan joan gara hotsak entzun dittugun tokira eta hara non aurkittu dogun katakumia berak harrapautako saguak jaten.

A zelako askarixa egin dogun hiruron artian!!



LIBURU GOMENDIXUA



Liburu honen protagonista Marimuki da eta neskatilla gazte bat da. Bi atal dittu, lehenengo atalian ordenagai-lluarekin jolasten daben mamu bat agertzen jako etxian egunero. Bigarren atalian zopa ez dau gustoko eta zelebrixak egiten dittu.

Liburu honek dittuen abenturak dibertigarrixak direnez, oso ondo pasatu dot.

Antton Dueso
Ibaizabal argitaletxia



ANE
KORTABARRIA
ETXEBARRIA
10 urte
Mariren Lagundia
ikastola

MUSIKA/ Gatillazoren batera, Keltoi! eta Banda Munizipala taldeek joko dute zapatuan, 22:00etan

Gatillazo, Evaristoren talde berria, zapatuan Jam aretoan, zeltarren aldeko kontzertuan

EDU MENDIBIL


Evaristo kantari ezaguna izango da zapatuan Jam aretoan. Gatillazo bere talde berriarekin etorriko zaigu Aguraingo kantaria. Zeltarren aldeko kontzertuan, Keltoi! galiziarrek eta Banda Munizipala oñatiarrek ere joko dute, 22:00etan hasita.

Vigoko Celta futbol taldeko Celtarras jarraitzaile taldeari solidaritatea azaltzeko kontzertua izango da zapatukoa. *Feixismo nunca mais* eta *Por Galiza e polo celta* leloari jarraituz, Keltoi!, Banda Munizipala eta Gatillazo taldeak izango dira Amilagako aretoan, 22:00etan. Kontzerturako sarrerak 8 eurotan (aurrez erosiz gero) eta 10 eurotan (Jameko leihatilan) jarriko dituzte salgai.

EVARISTOREN TALDE BERRIA

Esan bezala, Evaristo kantari ezagunaren azken taldea dugu Gatillazo. La Polla taldea desegin ondoren, RIP taldeko lagunekin The Kagas taldea sortu zuen, eta badirudi, proiektu hari jarraipena emateko asmoz-edo, Aguraingo kantariak baduela beste proiektu bat esku artean datozen hilabeteotarako: The Meas.

Zalantzarik gabe, euskal rock erradikala deritzonak eman duen kantaririk ezagunenetakoa da Evaristo. 1980ko hamarkadaren



Evaristo, La Polla taldeko kantari ohia, Gatillazo taldearekin dabil abendua ezker.

*Gatillazo taldeak
Debagoienean egiten
duen lehen
emanaldia da
zapatukoa*

hasieratik zeresan ugari eman zuen La Pollak. Ibilbide luzea eta emankorra izan zuten. Izan ere, 2003an atera zuten euren azken diskoa, *El ultimo (el) de La Polla* izenburukoa.

Gatillazo taldearekin La Pollaren kantu ezagunenak eta aspaldian landutako abesti berriak eskainiko dizkigu Evaristok.

*La Polla taldearen
kantu ezagunenak
eskainiko ditu
Evaristoren talde
berriak*

Abesti zaharren artean, *Tope buena*, *Los siete enanitos*, *Y ahora que?*, *Txus*, *Odio a los partidos*, *Hoy es el futuro*, eta abar dauzkagu. Evaristorekin batera La Polla taldean ibilitako Tripi (bateria) eta Txiki (gitarra) dira Gatillazon. Horiez gainera, Osoron (gitarra) eta Xabik (baxua) osatzen dute taldea. Gatillazok joan den abenduaren 20an eman zuen lehendabiziko kontzertua, eta biharkoa, hain zuzen ere, Debagoienean egiten duen lehenbiziko emanaldia da.

BANDA MUNIZIPALA, OÑATITIK

Gatillazoren aurretik Keltoi! galiziarrek eta Banda Munizipala oñatiarrek izango ditugu zapatuan. Banda Munizipala Josu (ahotsa), Mikel (gitarra eta koroak), Imanol (baxua eta koroak), Lauren (gitarra eta koroak) eta Ikerrek (bateria eta koroak) osatzen dute. Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu dute orain arteko lan bakarra, *Ra ra ra* izenburupean, DDT disko etxekaleratutakoa, hain zuzen.

HILAREN 17AN, ANTZERKIA JAMEN

Bestalde, Aste Santuko atsedenaren ondoren, antzerki emanaldia izango da Jam aretoan. Puppetry of the Penis talde australiarraren ikuskizuna ikusteko aukera izango da hilaren 17an, 22:30ean. Apirilaren 18an, berriz, Edguy, Brainstorm eta Nocturnal Rites heavy taldeek joko dute, iluntzean.

Udal Bandaren kontzertua domeka eguerdian frontoian

E.M.

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, apirilaren 4an, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren hasieraren inguruan antolatutako ekitaldietako bat da domekako kontzertua. Bandak honako piezak joko ditu: *Udaberriko txoria* (Alfredo Gonzalez Chirlaque), *Nada y mucho* (Juan Crisostomo Arriaga), *Porgy and Bess* (George Gershwin), *The Noah's ark* (Bert Apperment) eta *Txapeldunak* (Miguel Gonzalez Bastida). Azken pieza hau Gonzalez Bastidak Bergara Kirol Elkartearendako konposatutakoa da.



Kalejiraren ostean Udal Musika Bandak frontoian joko du.

lehenengo aipamena 1832ko udal akta baten agertzen da-eta. Ordutik hona ehunka musikari izan ditu taldeak. Gonzalez Chirlaque 1987a ezker dugu Bandaren zuzendari.

Udal Musika Bandak martxoaren 14an eman behar zuen kontzertua bertan behera geratu zen, martxoaren 11n Madril gertatutako atentatua zela-eta dolua adierazteko.

LABUR

Deskontrol taldea gaur eta Snobs eta Black Diamond bihar, zapatua, gaztetxean

Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta, herri bazkaria, jokoak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak ziren egitekoak gaur goizetik Bergarako gaztetxean. Iluntzean, berriz, Deskontrol taldearen kontzertua izango da.

Bestalde, bihar, zapatua, Snobs eta Black Diamond taldeek joko dute gaztetxean, 22:30ean.

Abdon Juaristi pintura lehiaketaren VII. ekitaldia Zezen Zaleak taldearen eskutik

Zezen Zaleak taldeak VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketa deitu du. Gaia *Zezenak Bergaran* izango da. Irabazleak 1.000 euro eta plaka oroigarria eskuratuko ditu.

Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, maiatzaren 6tik 13ra bitartean. Estiloa eta teknika librea izango dira. Neurria gutxienez 55x46 cm-koa eta gehienez 146x114 cm-koa izango da.

Denda txikien inguruko pintura lehiaketa deitu du Bedelkar dendarien elkarteak

Bedelkarrek denda txikien inguruko pintura lehiaketa deitu du. Adinaren arabera bi talde bereiztuko dituzte: 18 urtetik gorakoa eta gazteena, 18 urtetik azpikoena. Irabazleek 1.000 eta 300 euro eskuratuko dituzte, hurrenez hurren.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 1etik 30era egongo da zabalik, kultura etxean.

ZAHARRAK BERRI/ Besteak beste, zuzendaritza taldearen berritzea izango dute aztergai

San Joxepeko batzar orokorra, hilaren 26an

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du apirilaren 26an, 17:00etan. Besteak beste, zuzendaritzaren berritzea izango dute aztergai. Hasiera baten, Juan Iturralde urtebetez izango da erretiratuen elkarte presidentea.

Iturralde martxoaren 17ko batzar berezian izendatu zuten San Joxepe elkarte presidentea, Tomasa Zabaleta zena ordezkatuz. Berarekin batera, Mariasun Plazaola, Juan Kruz Azkarate, Nieves Gallastegi, Antolin Marchena eta Jesus Ruiz de Azuak jarraituko dute zuzendaritzan. Nati Albisua, Dora Manso, Maria Luisa Basterra eta Jose Miguel Ortigosak, berriz, zuzendaritza utzi berri dute. Gauzak horrela, azken hauek ordezkoak izendatuko dituzte apirilaren 26ko batzar orokorrean. Juan Iturralde presidente berriaren arabera, dagoeneko hitz egin dute zuzendaritzan lanean hasteko gertu dauden hainbat bazkiderekin: "Badauzkagu izen batzuk esku artean eta ziurrenik ez da arazorik egongo zuzendaritza osatzeko. Dena den, batzar orokorra egin

bitartean, hobe da izenik ez aurreratzea. Momentuan zuzendaritza berritzea da gure kezka nagusietako bat, azken urteotan ez da inolako erreleburik izan-eta. Bazkide guztien inplikazioa beharrezkoa dugu aurrera egiteko". Juan Iturraldek lau urte daramatza San Joxeperen zuzendaritza batzordean, eta hasiera baten urtebetarako hartu du presidente kargua. Iturraldek 65 urte ditu, eta erretiratu aurretik Mayc lantegian izan zen lanean".

Zuzendaritzaren berritzeaz gain, joan den urtean egindako jardueren balorazioa eta aurtengorako ildo nagusiak aztertuko dituzte batzar orokorrean. San Joxepe elkartearen 1.700 bazkide inguru dira eta guztiei batzarrean parte hartzeko dei egiten die zuzendaritzak.

HONDARRIBIAN AURREKO ASTEAN

San Joxepeko lagunak Hondarribian izan ziren aurreko astean. Bi autobusetan 115 lagun joan ziren. Goiz partean Hondarribiko alde zaharra eta hondartza ingurua ikusten izan ziren eta horren ondoren Usurbilgo Saizar sagardotegian izan zuten bazkaria. Arratsaldean Miramongo Parke- ra bisita egin ondoren, herrira itzuli ziren.



Argazkian azken urteotan San Joxepeko zuzendaritzan lanean izan den taldea.



Hurrengo mendi irteera, maiatzean

San Joxepe elkarte lagunek mendi irteera egin zuten Udalara atzo, eguena. Kanpanzar eta Besaide aldean ibili ondoren, Udalan bazkaltzekoak ziren mendizale beteranoak. Mendi irteeren programarekin jarraituz, hurrengo irteera maiatzaren 6rako antolatu dute. Ibilbidea honako hau izango da: Karakate-Irukutzeta-Pol-Pol. Bazkaria, berriz, Gorlako kantuan egingo dute. Gorlaraino joan-etorria egiteko autobusa izango da. Argazkian, Irukutzetako irudi bat.

LABUR

Irun eta Oreretako erretiratuekin bazkaria

Apirilaren 21ean Irungo eta Oreretako erretiratuekin elkartzeko dira San Joxepeko lagunak. Lehenbizi autoetan joango dira Zumarragara, 07:15ean, eta handik Irune-raino trenean egingo dute bidaia.

Esan bezala, horren ondoren, Oreretan egingo dute elkarrekin hiru egoitzetako lagunak. Bazkaria ere Oreretan izango da. Joateko interesa dutenek erretiratuen egoitzan edo 943 76 30 09 telefono zenbakian eman dezakete izena.

ESKAINITZA BEREZIA

Erreserba apirilaren 7a baino lehen

Palma de Mallorca *	250 €-tik aurrera
Tenerife *	230 €-tik aurrera
Tunez *	270 €-tik aurrera
Lanzarote *	230 €-tik aurrera

* Apirilean, maiatzean eta ekainean bidaiatzeko



Barceló



Bidaiak



ELGETA
Paula Palacios
Martxoaren 17an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Naia Perez
Apirilaren 7an, urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak eta familia.



BERGARA
Markel Laskurain
Apirilaren 1ean, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak bereziki Ane.



BERGARA
Aitor Zurro
Apirilaren 13an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Denise Cacheiro
Apirilaren 2an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oscar Perez
Apirilaren 1ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta familia.



ANTZUOLA
Loli Alberdi
Apirilaren 4an.
Zorionak eta muxu handi bat! Xabat.



ANTZUOLA
Marian Baleztena
Apirilaren 3an.
Zorionak eta muxu handi bat! Xabat.



ELGETA
Iruñe Errasti
Martxoaren 25ean, 5 urte.
Zorionak!
Etxekoak



BERGARA
Julen Marquez
Apirilaren 2an, 10 urte.
Zorionak!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua




BERGARA
Naroa Mujika Anton
Apirilaren 16an, 4 urte.
Zorionak!
Xabier eta gurasoak.



ANTZUOLA
Karmen Irizar
Apirilaren 4an.
Zorionak! Onintza eta amamaren partez muxuak.



ANTZUOLA
Iosu Aiestui
Apirilaren 7an, 8 urte.
Urte askotarako
Familiakoak.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
 BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
 eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOTAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskoizuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Fraiskoizuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskoizuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko apirilaren 2a / 196. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


Komertzioetan euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian Idolaz euskara elkarteak

AINZANE IRIZAR

Egunotan herriko denda eta komertzioetan txarteltxo batzuk banatuko dituzte Idolaz euskara elkarteak. Horrela, kanpaina bat abian jarri nahi dute, komertzioetan ere euskararen erabilera bultzatzeko. Hemen be euskeraz ein zeinke izango da leloa.

Egun batzuk barru, Hemen be euskeraz ein zeinke dioten txarteltxoak ikusi ahal izango ditugu herriko komertzioetan. Idolaz euskara elkarteak abian jarritako ekimena da. Merkataritzan euskararen erabilera bultzatzea da ekimen horren helburua.

Euskararen erabilera, askotan, ohitura kontua izaten da. Horregatik, Idolazekoek nahi dutena da komertzioetan izaten ditugun harremanetan, euskara erabiltzeko ohitura hartzea, bai erosleok, bai merkatariek.



Herriko hainbat denda, taberna eta komertzioetan ikusi ahal izango ditugu Idolaz txarteltxoak.

Herriko komertzioetan txarteltxo batzuk jarriko dituzte Idolazekoek

Bestalde, sukaldaritza eta antzerki ikastaroa antolatzen ere badirudute Idolazekoek. Oraindik datarik zehazteke duten arratsukaldaritza ikastaroa laster egingo dute.

Irailean talde berria hasi zela lanean Idolaz. Merkataritzan euskara bultzatzeko antolatzen duten ekimen hau izan da kalera begira egin duten lehendabizikoa; baina badirudi aurrerantzean ere lanean segitzeko gogoarela, eta beste hainbat ekimen ekitaldi eta ikastaro antolatuko dituztela.



Karmen Irizar zoriondu dute senitartekoez eta lagunek

Domekan, apirilak 4, Karmen Irizarrek urteak beteko ditu. Orain dela aste batzuk Martuteneko espetxetik Valladolideko Villanublako espetxera eraman zuten, eta hantxe beteko ditu urteak. Senitartekoez eta lagunek zoriondu egin nahi izan zuten, honako argazkia aterata./A.I.

LABUR

Haur Liburuaren Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza, Udal Liburutegian

Udal Liburutegiak antolatuta, Haur Liburuaren Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza. Arratsaldean, 18:30ean, Erregearen traje berria ipuina kontatuko die umeei Maite Toledo antzuolarrak. Anderren idazle ezagunaren ipuina da hori. Maite Toledo, berriz, hainbat ipuin eta literatura sariketa irabazi duen antzuolarra dugu.

Bestalde, Herri Ikastetxeko umeez egindako marrazkien erakusketa jarri dute liburutegian. Atzo ezkerrean, eguna, dago ikusgai erakusketa hori, eta datozen egunetan ere egongo da marrazkitik ikusteko aukera. Azkenik, ohar bat: hilaren 7an, eguaztana, itaita egongo da liburutegia; Pazko Astean, baina, zabalik egongo da.

Izartu programako proiektuak aurkeztuko dituzte Udaleko arduradunek jendaurrean

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programarako aurkeztutako proiektuak jendaurrean aurkeztuko ditu Udalak datorren astelehenean, hilak 5. Olanan etxean izango da hori, 19:00etan. Urtarrilean ere hainbat proiektu aurkeztu zituen Jose Angel Zabalo alkateak. Jose Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiarekin batera. Orduetik hona, baina, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte proiektu horietan; horixe azalduko dute asteleheneko aurkezpenean. Honako izango dira proiektuak: Uzarragatik Lizarragarako bidea, Ibarre auzoa urbanizatzea, gizarte etxea, alde zaharreko lurzorua eta azpiegiturak eta Sagastiko zelaian parkea egitea.

HIRIGINTZA

Aste Santurako Buztinzi kalea zabaltzea espero dute, eta noranzko bakarria izango du

A.I.

Eguraldiagatik, batez ere, lanak atzeratu egin diren arren, Aste Santurako Buztinzi kalea zabalik egongo dela espero dute Udaleko arduradunek. Aurrerantzean, noranzko bakarrekoa izango da kale hori; oraingoz, goitik beherako noranzkoak izango du.

Herriko plazatik eskola pareraino bi noranzkoetan ibili ahal izango gara automobilean. Handik aurrera, baina, noranzko bakarrekoa izango da aurrerantzean Buztinzi kalea. Oraingoz, goitik behera bakarrik pasatu ahal izango gara. Gero, baina, behetik gorako noranzkoak bakarrik izango du.

TALLERES ANTZUOLA BERRITUKO DUTE
Talleres Antzuola zegoen eraikina eta aldamenekoa eraberritu egin behar dituzte. Horretarako, aldazio handiak jarri beharko dituzte eta horrek trabak sortu



Buztinzi kalean zoru berria jarri dute, galtzada-harriz.

dizkio zirkulazioari. Horregatik, lan horiek amaitu bitartean, goitik beherako noranzkoak bakarrik izango du Buztinzi kalea. Ondoren, baina, behetik gorakoak izango da kale horren noranzkoak.

Ondarrera, berriz, plazatik sartu beharko dugu, baita irten ere. Kalegoitik baldin bagatoz, ezin izango gara sartu Talleres Antzuola albotik. Ibarrondora bakarrik sartu ahal izango da handik.

SAGASTI ETA KALEGOIKO LOTUNEA

Sagasti auzoa eta Kalegoi lotuko dituen errepidea ere laster zabalduko dute. Txorikua etxea eraitsi zuten horretarako, eta datarik zehazteke dagoen arren, Udaleko arduradunek adierazi digute berandu baino lehen zabalduko dutela bide berri hori.

Horrela, alde zaharra noranzko bakarrekoa izango den arren, zirkulazioak beste alternatiba bat izango du: Sagasti auzoko errepidea erabiltzea, hain zuzen ere.

LABUR

Administrari laguntzaile bat hartuko du Udalak

Hirigintza Saileko administrari laguntzaile lanposturako deialdia egin zuen Udalak. Lehendabizikoa azterketa martxoaren 24an egin zuten, eta 34 lagun aurkeztu ziren. Datoren eguaztenean, hilak 7, izango dute hurrengo proba, euskara azterketa, hain zuzen ere. Apirilaren 27an egin beharko dute azkeneko azterketa hautagaiek.

Telleria familiak Udalari eman dio hainbat dokumentu

Telleria familiak larru-ontzearen gainean zuen dokumentazio guztia eman dio Udalari. "Altxor historikoa" da material hori, Udaleko arduradunen esanetan. Aurrerantzean Udaleko artxiboan gordeko dute Telleriatarrek emandako material guztia. Bide batez, Udalak eskerrak eman nahi dizkio familiari.

ERRETIRATUAK

Erretiratuaren lokalean hainbat konponketa

A.I.

Udalak erabaki du erretiratuek Zurrategi plazan duten lokalean hainbat konponketa lan egitea. Oraindik aurrekontuak mahai gainean dituzten arren, erabaki dute dagoeneko zein konponketa behar dituen lokalak.

Lurzorua konpondu egingo dute eta baldosak jarri; ke-aitzapenerako sistema berria jarriko dute; sukalde txiki bat ere jarriko dute, eta hainbat zarata murrizteko lanak egingo dituzte. Berrikuntza lan horietatik egingo dituzte, besteak beste, Udalak eta erretiratuek halaxe adostuta.

AUKERA EGIN DUTE ERRETIRATUEK

Antzuolako Udalak, erretiratuek Zurrategi lokalean oso ondo ez zeudela ikusita, proposamen bat egin zien orain dela hilabete batzuk: Arin jatetxea hartzea, hain zuzen ere. Erretiratuek, baina, hainbat arrazoi tarteko, ezekoa eman zioten proposamen horri. Nahiago izan zuten oraingo lokalean jarraitzea; baina, hori bai, hainbat konponketa eginda.

Bestalde, behin betiko egoitza izango denari dagokionez, aipatzekoa da laster hasiko direla proiektu hori egiten; horretarako, elkarlanean jardungo dute Udalak eta erretiratuek.



Erretiratuaren elkarteko batzordeko kideak, batzarrean.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Aprilak 3

16:30: Antzuola-La Salle (2. erreg.)

Aprilak 4

12:00: Antzuola-Eibartarrak (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 2 Union Txiki 3 (2. erreg.)

Axular 0 Antzuola 0 (Gazteak)

Antzuola 4 Zestoa 6 (Kadeteak)

PILOTA

Udaberri Saria

Murumendi II-Olalde (Eskuz kad.) 5-22

Murumendi-Olalde (Paletaz) . . . 35-20

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
**Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzi 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
**Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko apirilaren 2a / 180. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Mendi museoa Domingo Iturbe eraikinean ipintzeko asmoa dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mendi museoa Elgetan ipintzeko asmoa aspaldikoa da. Proiektua egiteko eskatu zuen Udalak, eta aurrera doa. Laster proiektua nola doan aztertuko duen talde bat elkartzekotan da. Mendi museoa Domingo Iturbe eraikinean egiteko asmoa dago.

Datorren astelehenean elkartuko da mendi museoaren proiektuari jarraipena egingo dion taldea. Taldean, Untzuruntzaga arkitektoa —proiektuaren ardura-duna— eta Udaleko hainbat ordezkari izango dira, besteak beste.

Museoa Domingo Iturbe eraikinean jarri nahi du Udalak, eta horretarako, berrikuntzak egin beharko dira. Eraikina bera Gotzaindegiarena da, baina ez du inolako eragozpenik ipini bertan museoa jartzeko. Hala ere, eraikinak Gotzaindegiarena izaten jarraituko du gerora ere.

DIRULAGUNTZA

Udalak Izartu programarako aurkeztu du proiektua, baina oraindik erantzunaren zain daude. Programa honen bidez berrikuntzak



Domingo Iturbe eraikinak lau solairu ditu, eta, besteak beste, erakusketa gelak eta bulegoak ipini nahi dituzte bertan.

egiteko dirulaguntza jasoko du Udalak. Izan ere, 1.800.000 eurotik gorako kostua izango du.

Udalak proiektua aurten amaitzeko asmoa du, eta gero,

2005. edo 2006. urterako egitea. Lau solairu ditu eraikinak, eta asmoetariko bat da teilatua altxatu eta azken solairuan erakusketa gela ipintzea. Horrez gain, bule-

goak ere jarri ahal izango dira eta baita beste areto batzuk ere.

Museoa Elgetan jartzearen arrazoiak Euskal Herriko Mendi Federazioa bertan sortu izana da.

AURREKONTUA

Aurtengo aurrekontua hilabete honen amaierarako onartzeko asmoa du Udalak

I.A.

Iazko urtea amaitu aurretik aurrekontu proposamena eztabaidatu eta 2004. urtea hasterako onartuta izatea zen, hasiera batean, Udalaren asmoa, baina hasierako egutegia ez da bete eta oraindik onartu gabe dago aurtengo udal aurrekontua.

“Aurrekontua sekula baino handiagoa da eta horregatik denbora luzeagoa utzi nahi izan dugu aztertzeko”, esan digu Patxi Basauri alkateak.

Alkateari berari dagokio legez aurrekontuaren proposamena egitea, eta esan digunez, jadanik helarazi die gainontzeko udal ordezkariari.

Hala ere, Aralarrek martxoan kaleratutako buletinean proposatutako egutegia bete ez izana salatu zuen. Besteak beste, diote aurrekontu proposamena esandakoa baino bi hilabete geroago egin duela.

Orain, Aralar proposamen hori aztertzen ari da, eta alkatearen esanetan, apirila amaitze-

rako aurrekontua onartuta egongo da; hori nahi luke, behintzat.

INBERTSIO NAGUSIAK

Aurtengo aurrekontua, onartuz gero, sekula Elgetako Udalak eduki duen handiena izango da, 6.737.284 euro, hain zuzen ere. Aurrekontuaren zatirik handiena inbertsioetara zuzenduko dutela esan digu alkateak.

Pagatzako industrialdea handitzeko izango da kopururik handiena. Bestalde, Torrealdeko urbanizazioarako ere aurrekon-

tuaren kopuru garrantzitsu bat bideratuko dute.

Hala ere, inbertsio garrantzitsu hauek bi gune horietako lurren jabeek egin beharko dituzte. Udala kudeaketaz baino ez da arduratuko, eta horregatik sartu dituzte bi proiektu nagusi horiek aurtengo aurrekontuan.

Aurrekontua onartu ahal izateko osoko bilkura noiz egingo duten oraindik zehazteke dago, baina alkatearen esanetan, “egin dako proposamenetik ez dut uste aldaketa askorik egingo denik”.

LABUR

Maiatzetik zabalik haur eskolako aurrematrikulazioa

Udalak Haurreskolako aurrematrikulazioa hitzartu du, eta zuzeneko hitzarmen bidez, sinatzeko erabakia hartu du. Horren ondoren, Toledo taldeari eman dion proiektuaren haur eskolaren proiektuaren egiteko ardura. Hauek jadanik hasiak dira eskola berriaren nondik norakoak aztertzen, eta zuzeneko hitzarmen bidez, langintzan. Bitartean, herriaren 0 eta 2 urte arteko umeei dituzten gurasoei haurreskolaren gaineko informazioa helaraziko zaie Pazko astearen ondoren, maiatzetik hasita aurrematrikulazioa beharko dute.

Erretiratuek garraio txartelak egiteko aukera

Herriko erretiratuek Euskal Herriko trenetara eta Bizkaiko autobusetara eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko aukera dute. Txartela eskuratu nahi duten erretiratuek argazki bat koloretan, nortasun agiria konpulsatuta eta hiru euro eraman beharko dituzte. Gainera, Bizkaiko busetako txartela nahi izan eta elbarritasunen bat duten erretiratuek hori egiaztatzen duen agiriarekin ere aurkeztu beharko dute. Interesatuak Miren Villarrenarengana jo dezakete apirilaren 10a baino lehen.

Esther Larrañaga foru diputatuak hitzaldia egingo du

Elgetako EAJ alderdiak aurtengo hitzaldia izango du, eta datorren astelehenean, apirilaren 5ean, udaletxeko osoko bilkuran aretoa. Gizarte Politikarako foru diputatuak, Esther Larrañagak, egingo duen hitzaldia arratsaldeko zazpitan hasiko da. Lehenengo, bertan sailak Gipuzkoarako dituzten egitasmo nagusiak azalduko ditu. Gero, berriz, Domingo Iturbe kalean kokatu eta pizkanaka gertatzen ari diren zentro balioaniztunaren gaineko informazioa emango du.

ELKARRIZKETA

XABIER ARANGUREN/TXIRRINDULARIA

"Kanpoko lasterketetan parte hartzera joateak asko motibatzen nau"

I.A.

Xabier Arangurenek ibilbide luzea egin du txirrindularitzan. Lokatza taldean hasitakoa, egun Debabarrena taldean dihardu. Gipuzkoako Federazioak deituta, Iparraldean nazioarteko proba batean parte hartu du.

Aspalditik diharduzu txirrindularitzan, ezta?

Bai, hasi nintzenetik badira bederatzi urte-edo. Gazte mailara arte Bergarako Lokatza taldearekin ibili nintzen eta gero, amateurretan, Eibarren, Debabarrena taldean.

Zer moduz hasi duzu aurtengo denboraldia?

Gustura, nahiko ongi hasi naiz eta egin ditudan lasterketak uste bezala joan dira. Tira, Gorka igoeran hamar lehenengoean amaitu nahi nuen, baina eguraldiak ez zidan lagundu.

Zure burua ongi ikusi duzu, eta taldea?

Talde bezala Debabarrena beste urte batzuetan baino motelago dabil. Taldeko bik ongi ibiltzeko aukera dugu, baina gaintzekoak gazteak dira. Gainera, ziklokrosean ere jarduten dute, eta denean ezin ongi ibili. **Zein dira denboraldi honetarako dituzun asmoak?**

Ongi ibiltzea. Ez diot nire buruari inongo mugarik jartzen sailkapenei dagokienez. Ahalik eta ondoen egitea da nire helburua. Izan ere, buruan ideia bat izan arren egun txar batek dena izorra dezake.

Gipuzkoako Federazioak lan programa batean parte hartzeko deitu duzu.

Egia esan, ez dakit kontu horri buruz gauza askorik. Otsailean deitu zidaten Iparraldeko lasterketa batean parte hartzeko eta hara joan nintzen, baina hortik aurrera ez dakit gehiago.


Hala ere, gurako zenuke nazioarteko beste proba batzuetan parte hartu?

Bai, kanpora joateak asko motibatzen nau. Baina gehiengotan Euskal Herrian jarduten dut. **Zein da txirrindularitzan bizi izan duzun une onena? Eta txarra?**

Onena, gazte mailan, Arraten lortutako garaipena; okerrera, berriz, Villatuertako lasterketan izan nuen erorikoa. Hilabete pasa nuen bizikleta hartu gabe. **Zure zein ezaugarri azpimarratuko zenuke?**

Igotzen ona naizela esango nuke, baina hala ere irabazi egiten didate. Amateurretan, denean ona izatea komeni da. **Euskal Herriko Itzulia hastear da; faboritorik bai?**

Vinokourov izan daiteke bat, eta CSC taldekoren batek ere irabaz dezake. Etapetan, berriz, Astarloa, Valverde... Bizkor samarrek direnak ibiliko dira ongi.



I.A.

OMENALDIA

Patxi Basauri alkateari omenaldia egin dio Eudelek

I.A.

Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) urteko batzar orokorra egin zuen joan zen barikuan Iruenen. Batzarrean, ohiko gaiez berba egin ostean, Euskal Herriko hainbat alkateri omenaldia egin zieten.

Aurten, udal demokratikoen etapa berria hasi zeneko 25. urteurrena dela eta, 1979az geroztik alkatetzan diharduten Euskal Herriko hamabi alkateri omenaldia egitea erabaki zuen Eudelek. Hala, "Udalen eta, orokorrean, euskal gizartearen alde egingandako lana eta eskainitako dedikazioa aitortu nahi izan dugu", esan digute elkartetik.

Omenduek Eudelen urrezko intsignia jaso zuten elkartearen buru Karmelo Sainz de la Maza eta ordezkari Carlos Totorika eta Pablo Isasiren eskutik.

ALKATE 28 URTEZ

Guztira, hamabi izan ziren omenduak: arabarra bat, bizkaitarrak zazpi eta lau gipuzkoarrak. Hauen artean Patxi Basauri Elgetako alkatea. Hura da guztietatik alkate karguan urte gehien daramana: 28, hain zuzen ere. Izan ere, aurten lehen udal hauteskunde demokratikoak egin zirela 25 urte bete arren, Basauri trantsizio garaian ere izan zen alkate. Beraz, agintaldi hau amaitzen denean 31 urte beteko ditu alkatetzan.



EUDEL

Euskal Herriko beste hamaika alkaterekin batera jaso zuen Patxi Basauri (ezkerretik zazpigarrena) omenaldia.

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale



PANA DE ROKUA
TATETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergara KEko
gaztetxo
taldea, 1973

O raintsu omenaldia egin diote Bergara KEren futbol entrenatzaile ohi Maxi Gomezi. 1970eko hamarkadan lau urte eman zituen Maxi Gomezek entrenatzaile lanean, infantil eta gazte mailako taldeekin. 1980ko hamarkadaren erdialdean ere Bergara KEren entrenatzaile izan genuen, gazte mailan, hain zuzen ere. Alboko argazkian 1973. urtean ateratakoa da eta bertan azaltzen diren jokalariek Bergara KEko infantil mailako taldea osatzen zuten. Herri mailako txapelketa irabazi zuten urte hartan, finalean Osintxuko taldeari irabazita. Hain zuzen ere, Bergarako jaietan jokatu zuten finala, Seminarioan.

Partiduaren atarian ateratako argazkian azaltzen direnak hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Zutik: Maxi Gomez (entrenatzailea), Javier Igartua, Luis Ignacio Goenaga, Mariano Jauregi, Juan Carlos Zengotibengoa, Miguel Angel Madariaga, Jose Antonio Zornotza, Joaquin Soto eta Jose Luis Beitia (delegatua).

Makurtuta: Miguel Angel Agirre, Manu Moreno, Martin Zangitu, Iñaki Alberdi, Iñaki Agiriano, Gregorio Lakunza, Paulino Arriola eta Sabino Zabaleta.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Jose Luis Beitia.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**DEBA
GARAIA**

ETXE ETA FINANTZA
AGENTZIA


Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Hitz hauek San Pedro elizako zutabeen ageri dira, baina Bergarako ze ermitatan esan zuen santuak lehenengo meza 1551n?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
Nor izango da gai-jartzailea Erramu Zapatuko bertso jaialdian?</p> <p>A/ Jon Sarasua.
B/ Ainhoa Agirreazaldegia.
C/ Laxaro Azkune.</p> | <p>2.
Zein da Evaristo kantari ezagunaren talde berria?</p> <p>A/ Banda Basati.
B/ The Kagas.
C/ Gatillazo.</p> | <p>3.
Nor izan da aurtengo Gorlako Txirrindulari Igoerako irabazlea?</p> <p>A/ Jorge Azantza.
B/ Ander Agirre.
C/ Iker Llonet.</p> |
|---|--|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
AINHOA GOIENETXEarendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ainhoa! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Laudantz. Eskumakoa, Bidekurutzeta. / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kas laranja edo limoia
Bi litroko botila

0,94€
156 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Jose Julian Gimon

KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen 1898an. 1919an, lizentziaturako aparteko saria eman zioten Valladoliden, eta Alemanian eta Austrian osatu zituen ikasketak. 1927an doktore-tesia aurkeztu zuen Madrilén. Zirujau jardun zuen Eibarren, eta Basurtoko ospitalean laguntzaile aritu ondoren, ospitaleko buru izan zen. 1936 eta 1937an, Kirurgiako irakasle izan zen Bilboko Medikuntza Fakultatean.

Espainiako gerrak eragindako atsekabeak bizi izan zituen, agintari frankistek heriotza-zigorra ezarri baitzioten. Hainbat urte eman zituen Dueso eta San Fernandoko (Cadiz) espetxeetan: liberala zen eta ez zuen ezkututzen. Handik urte batzuetara indultua lortu zuen, espetxeko komunitateari emandako zerbitzuengatik.

Bilbora itzuli eta hutsetik abiatu ondoren, medikuntza eta kirurgiako erietxe bikaina sortu zuen. Hantxe geratu ziren Gimonen oroitzapen kutunak, argi-ilunak, ametsak eta poztasunak, eta beti nagusi izan zuen zuzentasuna. Bere lanetan medikuntza eta kirurgiaren alor zabalaren inguruko ikerketak eta bizipenak uztartu zituen. 1980an hil zen.

"Bergararra jaiotzez, Gimonek medikuntza eta kirurgiako erietxe bikaina sortu zuen Bilbon"



ARTXIBOA

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GREMIOEN GIDA

zure etxearen
osasun onerako



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
F 943 76 53 34

- Pintura
- Dekorazioa

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atreak



Mujika jantzi denda

Barrenkale 1 Tel.:/ Faxe: 943 76 29 91

Ezkontzara dotore joateko.

